

NORENTZAT NAIZ NI?

Bokazio kultura baterantz
gure erakunde eta komunitate ignaziotarretan

“Norentzat naiz ni? Jainkoarentzat zara, zalantzarik gabe. Baina Jainkoak nahi izan zuen besteentzat ere izan zaitezen, eta zugaran gaitasun, joera, dohain eta karisma asko jarri zituen, ez zuretzat gordetzeko, baizik eta besteentzat.”

(Christus Vivit 286)

AURKIBIDEA

0. Zergatik dokumentu hau?	5
1. Korapiloa deseginez: zer esan nahi du bokazioak?	8
• Maila antropologikoa.....	9
• Maila teologikoa.....	9
• Ignaziotar maila.....	10
• Bokazioak benetako zoriona ekartzen du.....	11
• Pertsona guztiek dute bokazioa.....	11
• Bokazioa ez da agerikoa.....	12
• Bokazioa ez dio norberak bere buruari ematen.....	13
• Bokazioa erantzunean zehazten da.....	13
• Bokazioa iraganean, orainean eta etorkizunean idazten da.....	14
2. Zer da bokazio kultura?	15
Nola lortu hori?	16
• Guztion zeregina da.....	16
• Jesusi begiratuta.....	17
• Dimentsio askotako zeregina.....	17
• Pertsonak, lehenetasuna.....	18
3. Gai izango den bokazio subjektua prestatzen	18
Barnekotasuna garatzea	19
Galdera sakonak sorraraztea	20
Prozesuetan bidelagun izatea	22
Bokaziozko bertuteak agerian uztea	23
• Nia erditik ateratzea.....	24
• Merezi izatea.....	25
• Senidetasun unibertsala.....	26
• Epe luzeko begirada.....	28
• Amets egitea eta helburu asko izatea.....	29
• Hauskortasuna, mugak eta porrota onartzea.....	30
• Askatasun askatua.....	31
• Doakotasuna eta ausardia.....	31
• Irautea eta jarraitzea.....	32
4. Ondorio gisa: bidean aurrera egiten jarraitzeko	34
Irakurtzeko eta lanerako gida	37

O. Zergatik dokumentu hau?

“Ni bizia –eta bizia ugari, gainera– izan dezaten etorri naiz.” (Jn 10, 10)

Bizitza betea izateko sortuak gara, eta hori nahi izatea arrazoizkoa da. Horixe da, hain zuzen ere, dokumentu honen azken arrazoa: ziu gaude Jainkoak bizitza betea izatera gonbidatzen gaituela. Eta maitatuz eta deituz egiten du hori. Horrela komunikatzen da, nahiz eta inguruneko “zarata” batzuek ez diguten entzuten laguntzen. Horregatik, **Probintzia gisa egin dezakegun gauzarik onena da gurekin eta gure erakundeekin harremanetan jartzen diren pertsona guztiei laguntzea Jainkoak haientzat amesten duen bizi proiektu hori entzuten eta bereizten.**

Horrela jasotzen du Probintziako Proiektu Apostolikoak ere (2019ko apirila), funtsezko hamargarren aukeran esaten baitu *“bizitza kristaua”* sustatu nahi duela, *“bokazio gisa ulertua eta, bereziki, Jesusen Lagundiarekiko bokazio gisa”*. Era berean, datozen urteetan *“pertsona, komunitate eta erakundeek bokazio kultura garatzea lortu nahi du, banakako bidelaguntzan eta komunitatearen harreran oinarrituta, Jesusen Lagundiarekiko bokazioaz galdetzen dutenei lagunduko dieten proposamen ausartak eginez”*. Helburu horrekin sortu dugu dokumentu hau: bokazio kultura Probintziako obra eta erakunde guztietan garatu ahal izateko laguntza ematen saiatuko gara.

Asmoa ez da estrategia berriak asmatzea edo ignaziotar espiritualtasunaren marketin hobea egitea. **Bokazio kultura berria eta argiagoa sustatu nahi da**, gure jarrerak eta etorkizuneko aukerak eraldatuko dituena. Bokazioaren inguruko galdera gure ignaziotar komunitateetan etorkizuneko bidearen iparrorratza bihurtu nahi dugu. Gure hezkuntza erakunde guztiek –gure tradizioan beti izan den eta den bezala– pertsonaren hazkunde integrala bultzatzea, bizitzarako heziz, eta ez soilik jakiteak eskuratzeko. Azken batean, beren ikasketa, lanbide eta bizitzako egoerak benetako bokaziotik biziko dituzten pertsonak prestatu nahi ditugu, “kontzienteak, gaituak, konprometituak eta errukiorrak”

izango direnak¹; eta "*utilitas, iustitia, humanitas eta fides*"ek gidatuta², "beren buruarentzat biziko ez direnak, Jainkoarentzat eta gugatik hil eta berpiztu zen haren Kristorentzat baizik; besteentzako gizon-emakumeak"³.

Gaur asko hitz egiten da "**bokazio krisiaz**". Krisi horrek ez dio soilik Bizitza Sagaratuari eragiten, baizik eta kristau bokazio orori eragiten dio, baita bizitzari berari ere, bokazio gisa ulertzen badugu. Zenbat bikote edo profesional dira bikote edo profesional, konpromiso hori bereizi dutelako, Jainkoak haien bizitzetarako zuen ametsa aurkitzen ahalegindu direnean? Zenbat pertsonarengan dute pisu handiagoa "ariman sortzen diren mozioek" [*Gogo Jardunak* 313] beste abantaila, sari edo erosotasun batzuen gaintetik? Horregatik, gaur egungo paradigma "bokaziorik gabeko pertsonena" da, bokazioa hautaketa huts gisa ulertzen baita, subjektuak "jartzen ditu arauak", bere sentimenduen edo unean uneko interesen arabera. Ez gu eta ez gure erakundeak ez gaude joera horretatik salbu. Bizi egoerak hautatzerakoan (ezkontza, bizitza sagaratu, apaizgoa...), irizpide nagusia ez da dei bati erantzutea, ezta Jainkoaren Erreinua aditzera eman eta lur honetan eraikitze apustua egitea ere. Horrek gogoeta egitera eraman beharko gintuzke, ikusteko zer falta den gure ignaziotar komunitateetan eta obretan, bai gazteen prestakuntza prozesuetan eta bai fedearen transmisioan.

Era berean, azken hamarkadetako bilakaera ikusita, ondorio argi bat atera dezakegu: **«zenbat eta txikiagoa izan bizitza sagaratu, orduan eta txikiagoa izango da bizitza laikoa, eta alderantziz»**. Hala, ignaziotar komunitateak Jesusen Lagundiaren gazteen pastoraltzak elikatzen baditu, aldi berean, Jesusen Lagundirako bokazioak –normalean– ignaziotar komunitateetatik sortuko dira, unibertsitate garaian edo laneko bizitzaren lehen urteetan. Gaur egun, ordea, ez da horrela gertatzen.

Izan ere, argi dago faktore askok dutela eragina. Horien artean, aipatzekoak dira jaiotza tasa txikia, gero eta sekularizazio handiagoa, bizitza erritmo oso altua eta hiperkonektatua, oso azaletik bizitzera

¹ Ignaziotar Pedagogiari eta Espiritualtasunari buruzko Nazioarteko Mintegia (SIPEI), Manresa, 2014ko azaroa.

² "Ledesma-Kolvenbach" paradigmaren lau osagaiak, Jesusen Lagundiko Unibertsitateetako pedagogia eta izaera zehazten dutenak.

³ Pedro Arrupe, *Ikasle Ohien Elkarte*en Europako X. Biltzarra, Valentzia 1973.

bultzatzen gaituena, etab. Ezaugarri horiek dituen gizartean, zaila da bokazioa bilatzea eta hautatzea. Ondorioz, pertsona askok zentzurik eta norabide argirik gabe bizi dute beren bizitza. Hala ere, inguratzen gaituen munduari begiratzen badiogu, bokazioz bizi den bizitza orok ekartzen duen ongia izugarria dela antzeman dezakegu.

Jakina, ongizatea beste ezeren gainetik jartzen duen gizarte honetan, dena dago proposamen horren aurka. Horregatik, **korrante nagusiaren kontra aritzea dagokigu, esparru guztietan bokazio kulturaren aldeko apustua eginez**, pertsonak beren bizitzarekin zer egin erabaki dezaten, beste bide batzuetatik lortuko ez luketen zentzuaren eta osotasunaren bila –fedearen begietatik, Jainkoak haien bizitzarako nahi duena dela ulertzen dugu–. Hain zuzen ere, bide horretan lagundu behar diegu bokazio eta bizi egoera orok duen erradikaltasuna eta zorrozatasuna bere egiten. Horixe da dokumentu honen azken arrazoia: edozein pertsonari egin diezaiokegun ongi eskerga, bere bokazioaren atzean ezkutatzen den bizitza betean aurkitzen eta lortzen laguntzen badiogu.

1. Korapiloa deseginez: zer esan nahi du bokazioak?

« Hau guztia nire poza zeuengan izan dezazuen esan dizuet, eta poz hori bete-betea izan dadin». (Jn 15, 11)

"Bokazio" hitza polisemikoa da, eta hainbat modutara uler daiteke, testuinguruaren arabera. Horrela, bokazio hitza entzutean, batzuek ikasketetan, lanbidean, bizi egoeran, sagaratze berezi batean eta abarretan pentsa dezakete. Eta hainbat eremutarako erabiltzen den hitza izanik, dena adieraztetik azkenean ezer ez adieraztera igarotzeko arriskua du. Horrek eskatzen digu gure galderen sakontasuna ongi zehaztea, bokazioa zer den azaltzerakoan, "egitea" gainditu eta "izatera" iristen dela ulertzeko. Izan ere, bokazioa norbaitek ogibidetzat duen horretarako orientazioa ematea baino harantzago joatea da, lehenengo "nor izatera deituta nago?" galderari erantzuteko eta, erantzun horretatik abiatuta, "horretarako zer egin behar dut?" pentsatzeko. Bokazioak zerikusia du norberak bere egiten duen **eginkizunarekin edo misioarekin**, baita norberaren **izaerarekin edo identitatearekin ere**. Eta zentzua eta xedea ematen dio bizitzari. Noren alde gauden bizitza emateko prest, horren arabera ulertuko dugu gure identitatea.

Gaur egun, identitatea bilatzeko eta berresteko nahia agerikoa da. Bokazioaren inguruko galderak gizakiaren barne-barnean bilatzen du erantzuna, norberaren irrika eta desio sakonenetan. Erantzuna kanpoko alderdietan edo jarrera politikoetan soilik oinarritzen badugu, ideologia hutsa bihurtzeko arriskua dago. Horrela, **bokazioaren ulermen integralean hiru maila** bereiz ditzakegu: maila antropologikoa, maila teologikoa eta maila ignaziotarra.

• Maila antropologikoa

Lehen mailari dagokionez, Frantzisko aita santuak *Christus Vivit* gorazarre apostolikoan dio gazte orok bizitzan galdera nagusi bat egin behar diola bere buruari: "norentzat naiz ni?" (ik. 286 zk.). Bokazioaren **oinarri antropologikoa** nabarmentzen du horrela, edozein testuingurutarako –fededuna izan ala ez– balio duena: modu egokian bizitzeko, bizitzan norberak duen eginkizuna zein den jakin behar da, hortxe aurkituko baitu bakoitzak bere buruari buruzko egia, pertsona bakoitzaren zeregin nagusiaren oinarritzko inspirazioaren iturburua. Bokazioak, horrela ulertuta, pertsona bat egitera deituta dagoen guztia hartzen du barne, bizitzari zentzua ematen diona. Eta honek ez du zerikusirik gurariekin eta gustuekin, baizik eta irrika eta desio sakonenekin. Funtsean, izatearen oinarritzko gramatika bizitza jasotako dohaintzat hartzea da eta, hori kontuan izanik, besteentzat dohain izatea, dohaintza bihurtzea. Aita Santuaren hitzetan, galdera horrek "*bizitzako erabakiei sakon ematen die argia, gogoratzen baitu erabaki horiek geure egin behar ditugula norberak bere burua ematea dakarren etorkizun askatasilean. Horixe da zoriontasuna iraunkorra eta benetakoa lortzeko bide bakarra!*"⁴.

• Maila teologikoa

Maila teologikoan, **errealitateari ikuspegi fededunetik begiratuta**, bokazioa pertsonak Jainkoarengandik jasotzen duen bizi proiektu baterako gonbidapena da. Horregatik, fedearen ikuspegitik, bokazioa deitzen gaituen Beste bati ematen diogun erantzuna da. Gizakia norberak bere burua erreferentziatzat hartzen duen subjektibotasunetik harantzago ulertzea esan nahi du horrek. Zehazki, gizakia aurretiko dei batek ukitzen duela uste da, eta dei horrek erronka egiten dio bere egiteko, erantzukizuneko eta konpromisoko bidean. Teologiaren ikuspegitik, bokazioa Jesukristori jarraitzeko bidea da eta bide hori betikotasunean amaitzen den bizitza bete-betea berriro aurkitzeko modua da. Deia doakoa da eta merituetatik independentea da; subjektuak egiten duen hautaketa bakoitzean, bere askatasuna jartzen du jokoan eta naturaz gaindiko helburura eramaten du.

⁴ Gazteei buruzko sinodoa, *Azken dokumentua*, 69. zk.

Beraz, izatearen ikuskera pasibo eta mekanizista batetik ihes egin behar da, ez dugu pentsatu behar Jainkoak alegiazko hariak erabiltzen dituela gu txotxongiloen modura mugitzeko. Halaber, ez da egokia Jainkoaren borondatea bizitzan erantzun egoki bakar batean jokatzeko dela pentsatzea. Bokazioa zubi estu bat balitz bezala irudikatzea litzateke, ongi hartu behar dena, osterantzean bidetik atera eta zoritxarrean erortzeko arriskua baitago. Azken batean, Jainkoak Ebanjelioaren arabera bizi gaitetzen nahi du. Bokazioa ez da jasan beharreko patu gisa inposatzen; aitzitik, maitasun proposamena eta bizitza betearen promesa da. Haren deiari erantzunez (gerundioan), norberaren izaera aurkituko dugu eta horrek “gu geu” izatera eramango gaitu, beste edozein autorrealizazio aginduk baino gehiago. Laburbilduz, teologiaren ikuspegitik, ekimen guztia Jainkoaren maitasunean dago, “lehenengo” egiten gaitu Hark⁵. Horrek jarrera jakin batzuk eskatzen ditu: entzutea, aintzatestea, prest azaltzea... Eta erantzutea. Izan ere, “jainkozko hautaketaren eta giza askatasunaren arteko tarte horretan”⁶ aurkitu eta berresten dugu norberaren bokazioa. Beraz, bokazioak izaera pertsonala eta dialogikoa du, deitua eta gonbidatua izatearen kontzientziak dakarrena.

• Ignaziotar maila

Hirugarren, **ignaziotar espiritualtasunari** dagokionez, bokaziozko erantzuna jarraipen kristauaren heldutasunari dagokio. Gogo jardunen prozesuan, bokazioa Betiereko Erregearen deian gauzatzen da, Jesusek berak *Berarekin eta Bera bezala* bizitzera deitzen gaitu [ik. *Gogo Jardunak* 95]. Dei hori aurretiko bi esperientzian oinarritzen da: Jainkoak maite duen izakiak garela jakitean, pertsona bakoitzarengan modu ezberdinean gorpuzten den helburu batekin [ik. Printzipioa eta Oinarria, *Gogo Jardunak* 23]; eta geure burua barkatu eta adiskidetutako izakitzat aitortzean [ik. Lehen Astea, *Gogo Jardunak* 23–72]. Bi esperientzia horiek beharrezko baldintzak dira Jainkoaren deiari esker onez eta doakotasunez erantzun ahal izateko.

⁵ Ik. Frantzisko aita santua, *Evangelii Gaudium*, 24. zk.

⁶ Gotzainen Sinodoaren XV. Ohiko Batzar Nagusiaren amaierako dokumentua (2018ko urriaren 3tik 28ra). Gazteak, fedea eta bokaziozko bereizketa, 78.

Hiru maila horiek bereizi ondoren, bokazioa zer den hobeto ulertzen lagunduko duten **ohar batzuk** erantsiko ditugu:

- **Bokazioak benetako zoriona ekartzen du**

Jainkoak denok bete-betean bizi gaitezen eta egiazko zoriona lor dezagun nahi du. Horrela amesten gaitu guztiok, bakoitza bere bokazioaren arabera. Baina argitu behar da bizitza bete hori ez dela ongizate hutsa, zoriontasunaren ikuspegi erredukzionista da hori, nahiz eta gure gizarteak etengabe horretara gonbidatzen gaituen. Bokazioak berak dakarrena sakonago jasotzen duen beste hitz bat "zoriona" da. Zorion hitzak bizitzan beharrezkoak diren bi dimentsio uztartzen ditu: zentzua eta gustua. Zentzua jakitearekin lotuta dago, norberaren izatearen zergati eta zertarako sakonen erantzuna aurkitzearekin. Horrek esanahia, norabidea, trinkotasuna, sakontasuna... ematen du, eta, nolabait, bizitza hutsa eragozten du. Gustua zapoarekin, alaitasunarekin, gozamenarekin eta abarrekin lotuta dago. Biak dira beharrezkoak pertsonak bizitza betea izan dezan. Kontua ez da gauzak egitea, baizik eta zentzuz, norabide jakin batekin eta gustuz egitea; eta hori bokazioak ematen du, norbera izatera deitua den hori izateak.

- **Pertsona guztiek dute bokazioa**

Bokazioa ez da hautatu gutxi batzuen pribilegioa. Garai batean, bokazioaz hitz egitea "apaiz edo moja izateaz" hitz egitea zen. Horrela, bokazio hitzaren benetako zentzua galtzen joan zen. Vatikanoko II. Kontzilioak joera hori antzeman zuen eta santutasunerako dei unibertsala azpimarratu zuen (ik. *Lumen Gentium* 5), gizaki ororentzat balio duena eta bokazio zehatzak marrazten laguntzen duena. Ikuspegi horretatik, santutasuna ez da elite espiritual batentzat gordetako zerbait bezala ulertzen, ezta Elizak bertute heroiko edo mirarizkoak aitortzen dizkien gutxi batzuentzat gordetako zerbait bezala ere. Santutasuna norbera izatera deituta dagoena gero eta gehiago eta gero eta hobeto izatea da, Espiritu Santuari lan egiten utziz, haren bidez gauzatzen baita Jainkoaren borondatea pertsona bakoitzarengan. Santutasuna, beraz, ez da gehigarri bat, plus bat, baizik eta gure izatearen parte da.

Hori jakinik uler dezakegu ez dugula bokazio bakarra, baizik eta guztiok ditugula bokazio bat baino gehiago. Batzuk unibertsalak dira,

guztiok partekatzen ditugunak, eta beste batzuk, espezifikoak eta bereziak, norberarenak. **Unibertsalen** artean dagoeneko aipatu ditugu santutasunerako eta zorionerako deiak. Baina horien aurretik, bizitzarako bokazioa dago. Bizitza beti oparitu egiten digute. Inork ez du ezer egin bizia jasotzeko, Jainkoaren dohaina da. Hori nahikoa arrazoi da existentzia edo izatea deitzen dugun denbora tarte hori zentzuz eta duintasunez betetzeko. Baina bokazio unibertsal horiek pertsona bakoitzarentzako **bokazio espezifikoko** batean zehazten eta eguneratzen dira. Bokazio hori –adierarik zorrotzenekoa– izango dugu aztergai dokumentu honetan.

• Bokazioa ez da agerikoa

Pertsona guztiok bokazioa izateak ez du esan nahi denok bokazio hori aurkitu dugunik. Eta are gutxiago, denok bokazio horri jarraitzen diogunik. Gerta liteke ez entzutea eta ez erantzutea ez dei unibertsalak ezta bakoitzaren dei partikularrak ere. Bokazioa, hasieran, hainbat kezka bidez adierazten da: bizitzan zerbait “handia” egiteko nahia; Jainkoak bakoitzarengandik gehiago espero duela sentitzea; gizateriaren oinazeak sortzen duen kezka; bizitza on bat edukita ere, zerbait falta zaigula uste izatea... Keinu horiek oraindik zehaztu gabe dagoen dei baten xuxurla gisa ikusten ditugu. Orduan, beharrezkoa da entzumena fintzea, isiltasunaz eta otoitzaz baliatuz, esperientziak eginez, aholkua bilatuz, etab. Egia esan, lehen urrats hori ez da hain agerikoa gaur egungo kulturari.

Gure mundua zarataz beteta dago eta zatar horiek arreta galaraz diezagukete, baita bokazio deia itotzera iritsi ere. Baina norbaitek bere bokazioa oraindik ez aurkitzeak ez du esan nahi bokaziorik ez duenik. Beste batzuek, aldiz, bokazioaren inguruko zantzuak izan ditzakete, baina ez dira ausartzen haren aldeko apustua egiten. Batzuetan beldurragatik, zuhurtzia faltsuagatik, idealak behar baino lehenago baztertzeagatik, edo erosotasunaren eta segurtasunen bilaketa nagusitzen delako. Egoera horiek tristeak dira eta bizitza grisetara eramaten gaituzte. Horrek bultzatzen gaitu bokazio kultura baten alde guztiz konbentziturak lan egitera, pertsona orori benetako zorionerako bidea aurkitzen eta aukeratzen laguntzeko.

- **Bokazioa ez dio norberak bere buruari ematen**

Pentsamenduaren historian, antropozentristotik –ildo modernista batzuen eraginpean– gaur egunera arte, nagusi izan da subjektua zentzu ororen jatorri gisa ikustea. Horrek aurrez aurre talka egiten du bokazioa kanpotik deitzen gaituen norbaiti edo zerbaiti erantzutea dela pentsatzearekin. Orduan uler dezakegu gaur egungo paradigma zergatik den “bokaziorik gabeko pertsonena”, hain zuzen ere, norberak eman behar diolako zentzua eta xedea bere buruari. Bokazioaz hitz egiteak eskatzen du onartzea gizakia ez dela errealitatearen subjektu kartesiarra eta bizitzaren zentzua eman egiten zaiola, bere buruaz harantzagozik datorren dei bati erantzuten diolako.

Horrek ez du esan nahi bokazioa eta norbera gauza desberdinak direnik. Jainkoak ez digu eskatzen “beste zerbait” izatea; aitzitik, ahalik eta ni-rik benetakoena izatea eskatzen digu, barru-barruko irrika eta desioak gorpuzteko gai izango dena. Norberaren egia aurkitu eta gorpuztea da helburua, gure ibilbidearen norabidea dagoeneko subjektuarengan baitago, dohain gisa. Beraz, egia hori ez du sortzen eta ez dio bere buruari ematen, baizik eta aurkitu egiten du, horri erantzuteko urratsak ematen dituen heinean. Norberaren sentimenduak eta subjektibotasuna ez dira azken irizpidea, ezta errealitatearen eta bokazioaren sortzaileak ere.

- **Bokazioa erantzunean zehazten da**

Maila teologikoan azpimarratu den bezala, bokazioa pertsonala eta dialogikoa da. Bokazioak deitua izateaz jabetzea eskatzen du eta gonbidapen hori onartu edo baztertu egin daiteke. Hortaz, bokazioa ez da etereoa, teorikoa edo utopikoa. Gauza erreala eta zehatza da, eta bizitzan hautatu eta hautuak egin ahala aurkitzen da. Horregatik esaten dugu bokazioa jasotako *dohaina* eta egiteko *zeregina* dela. Pertsonak bere bizitzaren agintea hartzea dakar, ausart erabakiz.

Horrela, gure urratsen bidea adieraziko digun eta urrats horiei zentzua emango dien iparrorratza bihurtzen da. Bidaia luzea da hori, denbora behar da bokazioa ulertzeko eta interpretatzeko. Pausoz pauso argitzen joaten da, norabide horretan aurrera egin ahala. Horregatik, gazteak hainbat esperientzia behar ditu, erantzun hori

gorpuzten eta berresten laguntzeko. Zentzuaren norabideaz hitz egiteak saihestu egiten du bokazioa norberaren zoriona jokoan jartzen duen erabaki isolatu gisa irudikatzea; izan ere, bizitza irudikatzen iparra da, eta harantz goazen heinean, zehazten, gauzatzen eta gozaten joaten da, hartzten ditugun urrats, hautaketa eta bizipenen bidez.

- **Bokazioa iraganean, orainean eta etorkizunean idazten da**

Bokazioa bizitzaren zentzuaren norabidea dela konturatzen garenean, betidanik "hor dagoela" sentitzen dugu, eta bizitzan zehar hainbat ahotsekin deitu digu, esperientzien, topaketen, hitzen, isiltasunen, desioen, besteen beharren eta abarren bidez. Horrela, unean uneko ñabardurak hartzen doa, bizitzako unearen arabera. Bokazioak bizitzari zentzua ematen dioten eta etorkizuneko hautaketak bideratzen dituzten **iraganeko esperientziak berrirakurtzea** dakar. Horregatik esaten dugu bokazioak iragana, oraina eta etorkizuna zeharkatzen dituela.

Norberaren bokazioaren bidea egiteko, beharrezkoa da dei horretaz jabetzea; izan ere, ezer baino lehen eta guztiontzat, modu sentikorrean, afektiboan, gorpuzdunean azaltzen da, baina kontzientziara iritsi gabe. Norberaren existentzia bokazioaren ikuspegitik aztertu behar da, poliki-poliki desioa onartzen ikasteko, izendatzeko gai izateko eta norantz bideratzen gaituen ikusteko. Gauza guztien gainetik irrikatzen dugun hori aurkitzea da helburua, gure desiorik sakonena aurkitzea, gogobetetze iragankorretatik harantzago. Horretarako, beharrezkoa da Jainkoak sentitzera ematen dizkigun **moziak ezagutzea** (eta horretarako tresna oso baliagarria da ignaziotar azterketa) eta mozio horiek onartzea, bihotz irekiz eta erabateko prestutasunez (horixe da, hain zuzen ere, ignaziotar axolagabekeriaren benetako esanahia). Atzera begiratzean ikus daitezke Jaunaren aztarnak, bizitzan bertan gonbidatuz eta deituz. Horregatik, askotan, bereizketa ez da norantz joan adieraziko dituzten "arrastoak" aurkitzea, baizik eta norberaren bizitza berrikusi eta berrirakurtzea, jadanik bizitza horretan zeuden mozio sakonak bilatzeko. Etorkizunerako deia da, dei erakargarria, baina atzera begira aurkitzen dena. Bokazioa bilatzea ez da, hortaz, "arrastoen mapa bat desfiratzea", baizik eta "atzerako ispilutik begiratzea", bizitzaren bidean aurrera goazen bitartean.

Horrek guztiak eskatzen du **bizitza eta bokazioa prozesu dinamikoko moduan** ikustea, hautaketa etengabe eguneratzen joaten baita, denboraren joanak eta testuinguru desberdinek ekartzen dituzten berritasunetara egokitzen joateko. Errealitate hori onartzeak esan nahi du norberaren izatea eta hautuak birplanteatzen dituzten inpaktuen bidez bizitzera mugatu beharrean, bakoitzaren egoerak eta esperientziak integratzen joatea. Hori onartzea ez da erraza, eta gazte askorengan ikusten dugu zailtasun hori, ez baitute norabide batean aurrera egin nahi, jadanik helmugan bertan egon nahi dute. Horregatik, ez dute galdetzen norantz jo behar duten, ez da hori haien kezka, baizik eta nola iritsi berehala.

2. Zer da bokazio kultura?

« Badakigu Jainkoak bera maite dutenen onerako bideratzen dituela gauza guztiak, bere aurre erabakiz deitu dituenen onerako, alegia.» (Erm 8, 28)

Gaur egungo sekularizazioak fedearen transmisioa, mendeetan egin zen bezala, etetea ekarri du, beste gauza askoren artean. Eta haustura hori ez da kate maila batean gertatu, askotan baizik. Haustura sistemikoa eta funtzionala da, ez soilik tokikoa edo unean unekoa.⁷ Eta horrek bizitza bokazio gisa ulertzeko moduari ere eragiten dio. Beraz, egoera honi ezin zaio ikuspegi bakarretik heldu (pastoraltzaren ikuspegitik, adibidez), haustura anitza denez, arlo askotatik landu behar baita (pastorala, soziala, akademikoa, pertsonen arteko harremanak, erakunde harremanak, etab.). Alegia, **ekosistema, kultura, humus bat** sortu behar da, bokazioaren inguruko galdera sor eta hazi dadin.

Ez da diseinatu behar den jarduera soil bat, tailer espezifikoko bat, edo programazioetan eta planetan sartu behar den item bat. Esparru guztiak helburu horri begira jarri behar ditugu, gure obra, erakunde eta komunitateetako parte diren pertsona guztiak inplikatu behar ditugu. Bokazioa gehigarri edo estra bat izan beharrean, kultura partekatutako bat izatea lortu behar dugu, bizitza

⁷ Ik. URÍBARRI, G. Jesucristo para jóvenes, Sal Terrae 2022.

ikuspegi horretatik bizitzen lagunduko duena. **Horrek esan nahi du bokazioa ez dela prozesu baten amaiera, aurreko helburu guztiak bete ondoren lortzen duguna –ginga edo berniza–, baizik eta gure ahalegin guztien funtsezko eta zeharkako osagaia izan behar du.** Zehazki, hezkuntzaren eremuan, ikasleei dei hori entzuten laguntzea da, beren dohainak munduaren beharren zerbitzura jar ditzaten, bizitza konprometituekin. Zalantzarik gabe, pertsona osoaren prestakuntza integrala eskatzen du erronka horrek. Eta hori ez da lortuko "adabaki" batzuk jarrita (kanpainaren bat edo jarduera pastoral, akademiko edo tutorialen bat), baizik eta nolabaiteko giroa –kultura– behar du, prestakuntzaren eta hezkuntzaren dimentsio guztiak bilduko dituena.

Prozesu ebanjelizatzaile orok kultura eraldatu nahi du, dagoeneko bertan dauden Erresumako haziak hazaraziz eta Berri Onaren aurka doazen dinamikak irauliz. Kultura nagusia erabat eraldatzea ia ezinezkoa da, nahiz eta erakunde, komunitate eta pertsona askok lan egiten dugun misio partekatu horretan. **Gure gaitasunez apaltasunez jabetuta**, Jesusen Lagundia presente dagoen lekuetan horretara eramango gaituen mikroklima edo mikrokultura bat sortzen ahalegindu behar dugu.

Nola lortu hori?

• Guztion zeregina da

*"Bokaziozko bereizketa gure obretako kulturaren eguneroko ezaugarri izatea"*⁸ nahi badugu, oso kontuan izan behar dugu ezin dela "kultur" dinamika bat sortu, dinamika hori gutxi batzuek bakarrik gauzatzen badute. Jakin badakigu korrante nagusiaren kontra goazela; horregatik, edo denok batera egiten dugu, edo ahalegina alferrikakoa izango da. Horretara eraman behar gaitu Probintziako Proiektu Apostolikoak, bokazio dimentsioak komunitate eta erakunde guztiak zeharkatzen dituela ziurtatuz; hortaz, Probintziako obra apostolikoetan elkarrekin lanean ari garen laikoek, jesuitek eta beste sagaratu batzuek partekatzen dugun misioa da hori.

Gainera, zeregin horrek bi dimentsio ditu eta agerian jartzea komeni da: alde batetik, bokazioak, adierarik zabalenean, sustatzeko lan

⁸ Arturo Sosa Aita Jenerala, Carta a toda la Compañía, 2021eko apirila.

egitea (eliz bokazio oro aberastasuna da eta pertsona bakoitzari lagundu nahi diogu berea aurkitzen); eta, bestetik, Jesusen Lagundirako bokazio zehatza ez ahanzte (jesuita berrien bokazioak ardura bereziz sustatuz eta lagunduz). Bigarren dimentsio horren hauskortasuna dela eta, Probintziaren misioan parte hartzen dugun guztiok geure egin behar dugu gazteak bizitza bokazio gisa planteatzera animatzeko eta haien bidelagun izateko zeregina eta, horrekin batera, Jesusen Lagundirako bokazioaren aukera aurkeztekoa, egingarria eta balio handikoa baita.

• Jesusi begiratuta

Fedearen ikuspegitik, bokazioa Jaunak berari jarraitzeko eta misiora bidaliak izateko egiten digun gonbidapenari erantzutea da: *"Hamabiei dei egin eta binaka bidaltzen hasi zen"* (Mk 6, 7). Misioa ez da gurea, Kristorena baizik. Berarekin eta Bera bezala bizitzera deitzen gaitu. Eta argi dago Kristorekin bat eginda bakarrik lagun diezaiekegula beste batzuei Harengana iristen. Beraz, horixe da Probintziako zeregin guztiei bokazio izaera edukitzen laguntzeko bide nagusia. Kristorengan bat eginik bakarrik, Jesusi begiratuta bakarrik lagun diezaiekegu gaurko pertsoneri bide horretan. Bidea haurtzaroan hasten da eta nerabezaroan, gaztaroan eta helduaroan ere bidelagun izatea eskatzen du. Horrela bakarrik proposa dezakegu, zintzoki, Kristo gurutziltzatuaren aurrean jarri eta geure buruari galdera hau egitea: *"Zer egin dut Kristorengatik? Zer egiten dut Kristorengatik? Zer egin behar dut Kristorengatik?"* [Gogo jardunak 53].

• Dimentsio askotako zeregina

Filosofiak kultura bat sortzeko edo aldatzeko funtsezko bi tresna aipatzen ditu: hizkuntza eta praktikak. Bokazio kultura sortzeko **gure obra eta komunitateen** hizkuntza eta praktikak birpentsatzea eskatzen du. Baina, dagoeneko aipatu dugun bezala, horrek ez du soilik pastoral arloan eragiten, baizik eta gure erakunde eta komunitateen dimentsio guztietan du eragina. Hizkuntza komun bat eta jarduteko modu koherente bat sortuz bakarrik eraiki ahal izango dugu pertsoneri bizitza bokazio moduan ikusten lagunduko dien kultura bat. Ildo horretatik, halako kultur aldaketak **misioan laguntzen ari garen pertsonen** dimentsioak ere eraldatu beharko lituzke: gure keinuak, hitzak, ikurrak, kontakizunak, balioak... Kultura bat birsortzeko, garen guztia eta egiten dugun guztia norabide

berera bideratu behar baitugu. Hala egiten ez badugu, inkoherentziak sortuko dira teoriaren eta praktikaren artean, eta horrek eragozpenak sortuko ditu.

• Pertsonak, lehenetasuna

Kulturaz hitz egiteak dinamismo soziologikoak edo pertsonen arteko harremanei buruzko teoriak erdian jartzeko arriskua du. Eta nahiz eta ebanjelizazioak kultura eta, horrekin, gizartea eraldatu nahi izan, ezin dugu gure helburua zein den ahantzi. Gure misioaren lehenetasuna pertsonak dira. Gure erakunde, obra eta komunitate guztiak gurekin harremanetan jartzen den gizabanako bakoitzaren zerbitzura daude. Bigarren une batean, lan horrek guztiak gizartean eragina izango du eta gizartea eraldatu egingo du, gure laguntza jaso duten pertsona horiei esker. Baina ez dezagun ikuspegia galdu: ez dugu mundua aldatu nahi –izate abstraktu gisa–, pertsonak aldatu nahi ditugu. Ahal dugun guztiei lagundu nahi diegu bokazioa aurkitzen, haien aldaketa pertsonalak mundua eraldatzen lagun dezakeela jakinik.

3. Gai izango den bokazio subjektua prestatzen

«Senideok, saia zaitetzte zuen bokazio eta hautu hori sendotzen». (2 P 1,10)

Gaur egun, gure gizartean nagusi den diskurtsoak bokazioa lanbide bat aukeratzera murrizten du, arlo ekonomikoan eta emotibo-sentimentalean nolabaiteko ongizatea lortzeko helburu bakarrarekin. Transzendentziarako irekitasunik ia ez dago eta ez dugu erantzukizun handirik sentitzen besteen premien aurrean, bereziki, urrun badaude. Errealitate horren aurrean, ziur gaude Nazaretoko Jesusekin eta bere Ebanjelioarekin topo egiteak bide berri bat irekitzen duela. Bide horretan, gizakiaren galderarik sakonenen erantzunak aurkitu ahal izango ditugu, baita bizitzaren zentzua eta itxaropena ere. Fedearen transmisioa, beraz, bokazio kultura lantzeko aliatu nagusia bihurtzen da. Hala ere, hori guztia egin ahal izateko baldintza gisa, beharrezkoa da oinarrizko elementu batzuk sustatuko dituen kultur giroa sortzea, subjektua bizitza

bokazioz ulertu eta hari erantzuteko gai izan dadin. Honako hauek dira:



Barnekotasuna garatzea

Lehena **isiltasuna lortzeko gaitasuna** da, ezinbestekoa baita entzuteko gaitasuna garatzeko. Pertsonak bere barneko zentzumenak fintzen ikasi behar du, inguruko zarataren gainetik, Jainkoaren ahotsa entzun ahal izateko. Inork ezin du jakin nor izatera deituta dagoen gaitasun hori gabe. Beraz, gazteei –eta ez hain gazteei– isiltasunean eta otoitzean entzuten irakatsi behar zaie. Norberaren beharrak eta nahiak ezagututa eta ulertuta, irrika sakonenak lehenesten ikas daiteke, baita inguruko munduaren beharrak hautematen, haiekin enpatizatzen eta haiei erantzuten ere.

Entzuteko gaitasun hori da **transzendentziara irekitzeko** lehen urratsa. Horretarako, presaren eta berehalako sariaren tentazioa gaindituko dituen prozesu pedagogikoa behar da. Bizitzaren zentzua eta egia bilatzeko bidea da hori, bi elementu horiek ezinbestekoak dira benetako bokazioa sortzeko. Irekiera hori, pausoz pauso edo ia bat-batean, **federe erlijioso** bihurtu ahal izango da, Kristorekin banaka topo egiteari, komunitate bateko kide izateari eta sakramentuei esker. Naturalena eta desiragarriena da prozesu horrek, azkenean, elizatasun osasuntsu eta beharrezko batera eramatea. Izan ere, kristau bokazio oro Elizan sortu eta garatzen da; Elizaren sufrimendu, beldur eta gabeziekin enpatizatzen du eta, batez ere, haren gozamen, poz eta itxaropenekin bat egiten du.

Bokazioa landu nahi duen subjektuaren beste elementu bat **barneko bizitza formulatzeko gaitasuna** da. Ez da nahikoa isiltasuna lortzea eta entzutea; horretaz gainera, norberaren baitan gertatzen dena ezagutzeko eta izendatzeko tresnak eskuratu behar dira. Denborarekin, pertsona bere bizitzari narratibitatea eta zentzua emateko gai bihurtzen da. Bokazioak norberaren historia fedearen ikuspegitik kontatzea eskatzen du, bizitzako gertaerak Jainkoaren hizkuntzaren arabera berrirakurtzeko gai izatea. Ikaskuntza geldoa eta pazientzia handikoa eskatzen du horrek, eta hori lortzeko modu pribilegiatua da bizitza espiritualean eskarmentu handiagoa duten pertsonen **bidelaguntza**.



Galdera sakonak sorraraztea

Bokaziorako beste esparru garrantzitsu batek pertsonengan galdera sakonak sorrarazteko gaitasunarekin du lotura. Gaur egun, bokazioaren galdera zer ikasi eta zertan lan egin erabaki eta denbora batera agertzen da. Gehienetan, bizitzako erabaki garrantzitsu horiek ez dira hartzen bokazioari lotutako bereizketa prozesu baten ondoren –ezta prozesuaren lehen urratsetan ere–, baizik eta azaleko beste irizpide batzuen arabera hartzen dira. Horregatik, gure gazteen artean haien izaeraren inguruko funtsezko galderak sorraraztea eta hori txikitatik naturaltasunez egitea zerbitzu handia da.

Gogoan izan behar da bokazioaren inguruko galdera pertsona bakoitzaren barruan sortzen dela, modu bakarrean eta desberdinean. **Zeregin horretan, inork ezin du gaztea ordezkatu.** Hezitzailearen edo bidelagunaren zeregina galderak sorraraztea da, ez galderak berak egitea, hori ez bailitzateke eraginkorra izango. Horretarako, hainbat motatako esperientziak balio dute, baina "kontraste esperientziak" deiturikoak (boluntario jarduerak, Hegoaldeko esperientziak, VOLPA programa...) mugarri garrantzitsuak izan ohi dira bokazio erabakiak hartzeko funtsezko gaiak planteatzeko orduan.

Merezi du azpimarratzea ezkontzaren aukera (baita bokazio gisa bizi ez denean ere) familian ongi hartu eta poz iturri bada ere, gaur egun kosta egiten dela apaizgintzako edo bizitza sagaratuko bokazioa ulertzea eta, kasu askotan, ez dela ongi hartzen. Horregatik, batzuetan, azken galdera hau kanpotik egin behar da, modu proaktiboan: ausardiaz egin behar diegu galdera ikasleei, seme-alabei, katekesiko gazteei eta abarrei, beste aukera batzuen artean, Jainkoak horretara ere dei egin baititzake. Proselitismoan erori gabe, gure testuinguruetan arrisku bat badago, eta ez da garrantzi gutxikoa: beldurra eta koldarkeria ezkutatzea, zuhurtziaren eta errespetuaren azpian.

Bokazioaren inguruko galdera ez da edozein galdera, galdera horretan norberaren izatea jartzen delako jokoan. Sakontasunez biziz gero, bizitzeko eta gure bizitza planteatzeko modua zalantzan jartzen du: mugiarazi eta suspertu egiten du, eta norbera apustu egitera eta konpromisoa hartzera eramaten duen proiektu bateraino

garamatza. Horrela, poliki-poliki, **galderak gero eta sakonagoak** izango dira, eta "zer ikasi?" edo "zertan lan egin?" atzean utzita, "zer egin nahi dut nire bizitzarekin?" edo "nor izan nahi dut?" galdetzera igaroko gara eta, azkenik, norberarengandik atera eta "norentzat naiz ni?" galdetuko dugu. Azken hori beste modu batera ere formula liteke: "zergatik edo norengatik emango nuke nire bizitza?"; izan ere, hiltzeko arrazoi bat duenak aurkitu du zergatik eta zertarako bizi nahi duen, hau da, aurkitu du bokazioa. Hainbat esparru ukitzen eta jorratzen dituzten galderak sorrarazi behar dira:

- **Errealitate soziala/komunitarioa:** helburua ez da soilik zer egin nahi dudan jakitea, baizik eta nire inguruko giza errealitateak zer eskatzen didan aurkitzea, zer premia dauden eta zer ekarpen egin dezakedan jakitea. Bokazioari buruzko galdera egiteko, kontuan hartu behar dugu dena ez dela norberarentzako kostuak eta onurak kalkulatzera mugatzen, baizik eta bizitza proiektu bat aukeratu behar dela, munduan gertatzen ari denari erantzunez.
- **Zentzua bilatzea:** bokazioa ezin baita ongizatearen bilaketa berekoi gisa ulertu. "Merezi duena" aurkitu behar da, bizitzari zentzua ematen diona, norberaren bizitzaren iparrorratza.
- **Errealitatearen konplexutasuna:** sakontasuna irabazi ahala, galdera zailei erantzun errazak emateko tentazioa gainditzen da. Horrek dakar, halaber, norberaren bizitzaren misterioaren dimentsioa onartzea eta galdera irekiekin bizitzen ikastea.
- **Transzendentziaren dimentsioa:** Ebanjelioan aurkituko ditugu galdera sakonenen erantzunak. Horrela jakingo dugu zorionik handiena Jainkoak gutako bakoitzarentzat duen ametsean aurkituko dugula. Eta fedez eta umiltasunez ikusiko dugu gizakiari buruzko galderaren benetako erantzuna Nazaretoko Jesusengan dagoela.



Prozesuetan bidelagun izatea

Bokazio prozesu oso batean, hiru etapa bereiz daitezke, argitasun handiagoz edo txikiagoz: lehenengo, gaztea deiaz konturatzen da; horren ondoren, dei hori interpretatu eta ondu egiten da, bereizketaren bidez; eta, azkenik, erantzun egiten zaio, bizitzako hautuak eginez. Prozesu hori bakarka egitea konplexua eta arriskutsua da. Horregatik, ignaziotar tradizioak beti ikusi du **bidelaguntza tresna pribilegiatua dela** pertsoneri beren bizi prozesuetan laguntzeko. Ildo beretik, Frantzisko aita santuak adierazi du bokazio kulturarako ezinbestekoa dela bidelaguntza eta, horretan, “lehen-lehena, entzutea” dela (*Christus Vivit*, 291. zk.). Honako hau ere eranstu du:

Ziur naiz gazte pastoraltza ez dela bere bokazioaren mailan egongo, gazte bakoitzaren bidelagun ez bada bere bokazioa aurkitzeko eta onartzeko prozesuan. Norberaren bokazioaren munduan sartzeak norberaren izatearen zentzu sakonaz konturatzea esan nahi du, horrela gazte bakoitzari errealitate handiarekin harremanetan jartzen lagunduz, jakinik errealitate handi horretarako “ni misio bat naizela lur honetan, eta horretarako nagoela mundu honetan.”⁹

Bestalde, Arturo Sosa Aita Jeneralak beste urrats bat eman du, eta horretarako baliabide materialak eta giza baliabideak jartzeko eskatu du:

*Esperientziak erakusten digu bokazio bereizketaren arrakastaren gakoa hurbileko bidelaguntza dela. Beraz, ziurtatu behar da behar adina pertsona daudela bokazioa bereizteko bideari ekiten diotenei behar duten denbora eskaintzeko.*¹⁰

Askotariko maila eta moduetan, guztiok gara deituak gure inguruko hainbeste gazteren **bidelagun hurbil eta proaktibo** izatera. Bidelaguntza hainbat modutakoa izan daiteke, norberaren ezaugarrien, bidelaguntza jasotzen duenaren bizitzako

⁹ FRANTZISKO AITA SANTUA, *Christus vivit*, 254. zk.

¹⁰ Arturo Sosa Aita Jenerala, Carta a toda la Compañía, 2021eko apirila.

momentuaren eta harekin elkar eragiteko testuinguruaren arabera. Edonola, beharrezkoa da ondoan egotea, bereziki bizitzaren funtsezko uneetan, Jainkoarekin topo egiteko baldintzak sortzen lagunduz, hark deitzen eta bidaltzen baikaitu. Horrela bakarrik lagundu ahal izango diegu gizarteak inposatu dien "errailetik ateratzeko" laguntza behar duten gazte askori. Gazteari bizitza Ebanjelioaren argitan planteatzea baino ezer hobirik ezin diegu eskaini, bizitza eskuzabaltasunean eta askatasunean oinarritu dezan, ongizate hutsaren tentazioan erori gabe. Hori bai, prozesu horietan bidelagun izateak entzuteko eskuzabaltasuna behar du eta gure erakundeei eta komunitateei eskatu behar diegu elkarrekin egotea ahalbidetuko duten espazioak eta topaketa eta entzute eskuzabal horretarako kalitatezko denbora izango duten pertsona prestatuak eskaintzea.



Bokaziozko bertuteak agerian uztea

Bokazioz bizitzeko gai den subjektu bat prestatzeko prozesu honetan, funtsezkoa da bokazioari lotutako balioak eta bertuteak transmititzea erraztuko duen giroa sortzea, batzeko eta norabide berean arraun egiteko. Esperientziak erakusten digu **balio eta bertute horiek transmititzeko modu bakarra kutsatzea dela**, horiek gorpuzten dituzten pertsona zehatzekin harremanetan egotearen bidez. Ez da nahikoa ikuspegi akademikotik edo intelektualetik irakastea. Gure erakundeetan eta komunitateetan, diskurtsoek, politikek eta jarduerak bertute horiek bizi eta transmititu behar dituzte, koherentziaz.

Gaur egungo erlatibismoaren eraginez, balio nagusiak "haizearen norabidearen arabera" aldatzen dira askotan; horregatik, premiazkoa da bertuteak berreskuratzea. Bertuteetako batzuk gure gizartearen badaude eta horiek indartzen jarraitu behar da. Beste batzuk gaur egungo **kulturaren kontrakoak** dira, baina oinarritzkoak dira benetako bokazio kulturarako. Oztopo izan beharrear, alternatiboak izan daitezke eta hori erakargarria eta itxaropentsua da gaurko gazteentzat.

• Nia erditik ateratzea

«Nire ondoren etorri nahi duenak uko egin biezaio bere buruari, bere gurutzea hartu eta jarrai biezat.»
(Mt 16, 24)

Bokazioa norberak bere buruari ematen ez dionez, pertsonaren dohain eta gustuekin zerikusi handia badu ere, ez da haietara mugatzen, baizik eta munduak behar duenarekin batera agertzen da beti. Horrela, bokazio orok zerbitzurako deiaren dimentsioa ere badu, norbere baitatik irtetekoa, errealitatearen erdigunea dela sinesteari utzita.

Bokazio galderaren berezitasuna bere erreferentzialtasuna da. Bizitzari buruzko galdera nigan sortzen bada eta nigan erantzuten bada, guztiz autorreferentziala da: galderaren objektua eta galdera egiten duen eta galderaren erantzuna jasotzen duen subjektua bat datoz. Bestela esanda, nik neuk diseinatuko dut neure bizitzari norabidea emango dion proiektua. Bokazioari buruzko galderak, aldiz, nahiz eta norberaren sakon-sakonean jaio, bere baitatik kanpo bilatzen du erantzuna. Erantzunaren egilea Beste bat da, ez naiz ni. Eta horrek aurrekoaz bestelako eskema batean kokatzen gaitu eta ondorio esanguratsuak ditu: **norbera erdi-erdian egotetik toki horretatik mugitzera eraman behar gaitu, erditik urruntzera.**

Zorionaren bilaketa autorrealizazioan oinarritzen duen gizarte honetan, aldaketa horrek eskatzen du benetako bokazioa **hetero-errealizazioan** oinarritzen dela ulertzea eta hori bizitzen laguntzea. Ni neu ez nago zentzu osoaren erdi-erdian, baizik eta zentzuaren iturria kanpoan dago, ni baino lehenagokoa da eta deitu egiten dit. Horregatik esaten dugu erditik ateratzeko gai den ni bat izan behar duela. Bizitza autorrealizazioaren ordezkari dohaintza gisa bizitzeko aukera besarkatzea da. "Norberaren errealizazioa" hainbeste goraiatu duen gizarte honetan, nork bere buruari begiratzen diogu eta, horrela, pertsonak bitarteko gisa erabiltzeko arriskua izan dezakegu, gauza bihurtuz eta alde batera uztearen kulturen edo Frantzisko aita santuak hainbestetan salatzen duen "erabiltzearen eta botatzearen" kulturen eroriz. Aitzitik, bokazioa dohaintza da, besteari begiratzen dio eta doakotasuna du ezaugarri. Horrela, benetako zoriona iritsi egiten da, norberak "bere burua

errealizatuta” ikusten du, jasotzen den dohain bat da, ez norberak egiten duen zerbeit.

- **Merezi izatea**

«Borroka ona egin dut, bukatu dut lasterketa, gorde dut sinesmena. Dagoeneko zain daukat garaipenaren koroa, Jaunak, epaile zuzenak, azken egunean emango didana». (2 Tm 4, 7-8)

Erditik ateratze horrek adierazten du zorionaren helmuga ez dagoela norberaren ongizatearen baitan, neure buruarekin ongi sentitze soilean. Funtsean, planteamendu horrek berekoikeria sakona ezkututzen du, bokazioaren guztiz kontrakoa. Izan ere, zoriona, benetako zoriona, bizitza "merezi" duen zerbeitara bideratuta dagoenean bakarrik lortzen da. Norberak bizitzan aukera baten alde egiten duenean, onartzen du zaila izango dela, une batzuetan ez dela eroso biziko, baina **aukera horrek "merezi ditu" aipatutako deserosotasun eta atsekabe horiek**. Bestela esanda: bokazioak ez du bizitza oztoporik gabeko bide bihurtzen; aitzitik, bokazio bakoitzak bere zailtasuna du eta "maldan gora" joan behar dugu, bidean oztopoak, porrotak, arazoak... agertuko dira. Horiek onartu eta aurre egin behar zaie, jakinik zailtasunek edo atsekabeek ez digutela zoriona kentzen, baizik eta *egoera horietan* eta *egoera horien atzean* aurkituko dugula benetako zoriona.

Zoriona eskura ditugun plazer txikien gozamen hutsera mugatzeak gizakiaren bokazio eta zeregin duin orenen aurka egiten du. Gaur egun, hartzten diren erabaki askotan, segurtasuna eta egonkortasuna bilatzea da xede nagusia, zoriona lortzea baino gehiago. Horregatik, bokazioz merezi duenaren aldeko hautua egiteak beste ondorio batzuk dakartza berarekin:

- **Ahaleginaren kulturaren** aldarrikapena, beharrezkoa baita porrotak gainditzeko, zailtasunei aurre egiteko eta guztion onerako eta ondo egindako lanerako sakrifizioaren balioa aitortzeko. Lortutako arrakastei edo fruituei begiratzeaz gain, egiten den horretan dena emateari eta norberaren erantzukizunak betetzearen pozari ere begiratzen dion kultura.

Horrek talka egiten du gizarteko hainbat esparrutako eredu nagusiekin, askotan gehiago txalotzen baita pikarokeria eta ahalegin txikienarekin lortutako arrakasta erraza.

- Aurrekoarekin lotuta dago **frustrazioa onartu eta jasateko gaitasuna**, hazteko eta errealitatea den bezala onartzeko beharrezkoa baita, norberaren sentimendua bizitza bideratuko duen erabateko absolutua bihurtu ez dadin. Horrek dei egiten gaitu gazteak kotoi artean ez babestera, frustrazio oro saihestu nahian; aitzitik, porrotetatik ere ikasi egiten dela erakutsi behar zaie.
- Azken batean, horrek guztiak **borondatearen protagonismo handiagoa** berreskuratzea eskatzen du. Bokazioa norberari gustatzen zaionera edo ongi sentiarazten duenera mugatzen denean, borondatea ahuldu egiten da eta, horrekin batera, baita hautaketa bat aurrera eramateko gaitasuna ere. Borondatearen garrantzia berreskuratzea behar dugu, besteak beste **pertseberantzia eta leialtasunaren** bertuteetan hezteko, beti agertuko diren zailtasunen eta zalantzen gainetik.
- Funtsean, aurreko guztiak **sentimenduak, nolabait, erlatibizatzea** eskatzen du. Ez du esan nahi emozioak gutxietsi egin behar direnik, eta are gutxiago erreprimitu egin behar direnik; baina ez dira absolutu bihurtu behar. Horrela, "bakean egotea" ez da beti Jainkoaren berrespenaren sinonimo izango. Neure buruaz harantzago, oihuka ari den eta gutako bakoitzari erantzun bat eskatzen digun errealitate bat dago. Horregatik, erantzuna, leialtasuna, konpromisoa... eskatzen duten esparruetan "bakean egotea" engainua edo ihesa izan daiteke.

• Senidetasun unibertsala

«Zuek, ordea, ez utzi inori zuei "maisua" deitzen, bat bakarra baita zuen maisua, eta zuek denak senideak baitzarete». (Mt 23, 8)

Aurreko esparrutik ikuskera antropologiko jakin bat ondorioztatzen da: guztiok garelako elkarren arduradun; fede ikuspegitik: guztiok garelako anai-arreba. **Errealitateak interpelatzen banau, besteei**

gertatzen zaienak eragiten didalako da. Ez bakarrik kalte egin diezadakeelako, baizik eta, batez ere, besteen oinazearekiko eta sufrimenduarekiko enpatia dudalako. Gizaki oren duintasun sakratua aitortzetik eta duintasun hori egoera askotan errespetatzen ez dela ikusetik sortzen den enpatia.

Frantzisko aita santuak ideia hori garatzen du bere bi entziklika handietan: *Fratelli tuttik* senidetasun unibertsala du hizpide eta *Laudato sik*, berriz, "dena interkonektatuta" dagoela errepikatzen du, senidetasun hori Sortzailearen eskuetatik atera den izaki orotara zabalduz. Horregatik, senidetasun unibertsalak izen eta ñabardura desberdinak hartzen ditu gure sektore eta erakundeetan. Zehazki, herritartasun globalaz hitz egiten dugu, misio komunitateez, etxe komunaz, etab. Erabiltzen dugun izena edozein izanik ere, guztiek errealitate berari egiten diote erreferentzia: **mundu urratu honetan, Jainkoaren deiak interpelatu egiten gaitu**, eta norbera baino zerbait handiagoaren parte garela konturatzera eramaten gaitu. Horregatik, ez dute tokirik izango besteekin batera, komunitatean, elkarlanean egiten ez diren bizitza betea lortzeko proiektu pertsonalek. Zoriona ezinezkoa da besteak kontuan hartu gabe. Eta hori, gizarte indibidualista batean, oso profetikoa bihurtzen da.

Gaur egun, badirudi gizakia errespetatu behar diren eskubideen hartzailea besterik ez dela. Badirudi, gainera, denborak aurrera egin ahala, berritasun bakoitzak berarekin dakarrela geuretzako eskubide berriak daudela onartzea. Horrek bizitzari aurre egiteko modu jakin bat sortzen du: subjektuak uste du gainerako guztien aldetik etengabeko errespetua "merezi" duela, bere eskubideetako bat bera ere urratu ez dadin. "Eskubideak izateko eskubidea" da. Bokazio kultura ez da posible izango, baldin eta ulertzen ez badugu gizaki orok dituela eskubideak, baina, aldi berean, erantzukizunak eta betebeharrak ere badituela.

• Epe luzeko begirada

«Atletek diziplina gogorra ezartzen diote beren buruari, eta hori, zimeltzen den koroa irabazteko; guk, ordea, zimeltzen ez dena irabazteko» (1 Kor 9, 25)

Gizakiaren bihotza guztiz betetzen duen bokazioak, benetako zoriona ematen duen bokazioak, ez dio berehalako sariaren logikari erantzuten. Aitzitik, sariak atzeratzeko gaitasuna, eroapena, pazientzia... Horrek guztiak denbora behar du, itxaroteko gaitasunik gabe uzten gaituen gizarte honetan.

Garapen teknologikoak **bizkortu egin du gure bizi erritmoa eta berehalakotasunera ohitu gaitu**; berehalakotasun hori edozertarako eskatzen dugu. Ikerketa askok teknologiak gure burmuinean dituen eragin neurologikoei buruz ohartarazten digute: gogobetetze azkarreko bideak estimulatzen dituzte, eta horrek mendekotasuna eta adikzioa sortzen ditu. Gaur egungo teknologiak eta marketinak berehalako sariak eskaintzen dituzte gure gurari eta irrika primarioenentzat, eta, horregatik, beste sistema batzuk, arretarena eta borondatearena, adibidez, atrofiatu eta ahuldu egiten dira. Horrela, bereizteko gaitasun txikiagoa, emozioak kudeatzeko zailtasun handiagoa eta frustrazioarekiko intolerantzia handiagoa duten pertsonak izango ditugu. Horrek guztiak "orainaldian" bizitzera garamatza, begirada berehalako gogobetetzean bakarrik jarrita. Eta horrela, zailagoa da transzendentzian pentsatzea eta norberaren baitatik ateratzea.

Bokazio kulturak **epe luzera begiratzen ikastea** eskatzen du, pazientzia eta itxarotea balioestea, baita aspertzea ere... horietatik sortuko baita harridura, sormena, errealitatean gertatzen diren gauza on askoren balioa, nahiz eta gauza horiek distiratsuak edo berehalakoak ez izan. Gehiegizko estimulazioaren zirkulua apurtu behar dugu, ez baitigu gelditzen uzten. Gelditu, isiltasuna lortu eta bizitzaren eta bizitzako prozesuen benetako erritmoarekin konektatu, ez baitira berehalako sarietan oinarritzen.

• Amets egitea eta helburu asko izatea

«Irrika itzazue dohainik onenak. Orain biderik bikainena adierazi nahi dizuet». (1 Kor 12, 31)

Zalantzarik gabe, bokazio orok badu bere baitan handitasunera eramaten gaituen zerbait. **Ebanjelioko handitasuna apaltasunetik eta zerbitzutik datorrela jakinik**, handitasun hori ez dago gutxi batzuen eskuetan, baizik eta denok gozatzea da helburua, mundu adiskidetu batean. Beraz, bokazioarekin amets egiteko eta asmo handiak desiratzeko gaitasunaz hitz egin behar dugu, edertasunarekiko harriduraz, egiarekiko estimuaz, altruismoaz, larrialdiko elkartasun hutsa baino askoz ere gehiago dena, etab.

Gaur egun, gure gizartean, lozorroan jarri gaituen jarrera nagusitu da, besteak beste autolaguntzaren eta *coaching*aren zenbait bertsio sinplistik modan jarri dutena. Errealitatea den bezala onartzea sustatzen dute, eta horrek, azkenean, ezer ez egitera eramaten gaituen etsipena dakar. Mezu horien abiapuntua da pertsonak bere burua den bezala onartu behar duela, eta ez dagoela inoren esku norbera dena aldatzea. Bokazioak norberaren dohainak eta mugak argi aitortzea dakar, baina prozesu horrek ez gaitu pasibotasunera eraman behar, eta onartzea ez dela etsitzea edo nagikeria bultzatzea ulertu behar dugu.

Aldi berean, Elizaren esparru batzuetatik nolabaiteko etsipen konformista ere sustatu izan da, bertute bat izango balitz bezala. Gurutzea soseguz onartzen ikasi behar badugu ere, horrek ez du esan nahi bizitzeko gogoia alde batera utzi behar dugunik, **asko nahi izan, hainbeste lortzeko**. Jainkoak ez du seme-alaba anesthesiatu, konkortu nahi. Pertsona sutsuak nahi ditu; bihotz sutuak, mundu hobea eraikitzeko; bidegabekeriaren aurrean etsitzen ez direnak eta mundua adiskidetzeko lortu arte asetzen ez direnak. Ezin dugu ahaztu Ebanjelioko eta moral kristauak maximoak bilatzen dituztela, gizakiaren xede espiritualak lortu ezin dena lortzea baita, eta bide horretan, bizitza ematea. Horregatik, bokazioan **helmuga bezain garrantzitsua da bidea**.

Hain zuzen ere, norberaren bokazioa aurkitzeko eta jarraitzeko behar-beharrezkoa da **sormenaren originaltasuna eta norberaren**

dohain bereziak garatzea. Barregarri uztea eta inork ez baztertzea nahi badugu, modei erantzutera eta masaren zati izatera behartzen gaituen kultura honek, azkenean, "artaldean itsu-itsuan ibiltzea" dakar, nahiago baitugu gure originaltasun bereziari uko egitea, artaldean tokiz kanpo egotea baino. Jainkoak pertsona bakoitzarengan jarri dituen dohainak eta kezkek aitortu, balioetsi eta ahalik eta indar handienaz sustatu behar dira, zorionerako bidea aurkitzeko.

• Hauskortasuna, mugak eta porrota onartzea

«Altxor baliotsu hau buztinezko ontzitan daramagu». (2 Kor 4,7)

Aurrekoa esanda, komeni da argitzea bokazio orok hartu behar duela kontuan norberaren errealitatea, eta argi onartu behar dituela norberaren mugak. Aurrez esandakoaren kontrako muturrean, gure gizartean ere bada psikologia positiboaren bertsio edulkoratu bat, errealista ez dena eta mugak eta porrota onartzen laguntzen ez duena. *Mr. Wonderful*-en unibertso ezaguna da, "Nahi duzun guztia lor dezakezu" eta antzeko esaldi motibatzaileek osatzen dutena. Proposamen horien arrakasta arazo konplexuetarako errezeta azkar eta errazak eskaintzean datza, bazterrean utzita bizitzak bere etsipen, atsekabe, zailtasun eta porrotak ere badituela. Eta errealitatean bizi ez bagara, arriskua da ez garela gai izango dena agintzen zigutena bezain polita eta erraza ez dela konturatzean iristen diren krisiak gainditzeko.

Zalantzarik gabe, errealitatea onartzeak ez gaitu eraman behar bizitzeko gogoia motelduko duen etsipenera, baina behar-beharrezkoa da konturatzea, norberaren mugen eta bizipenen zaurien eraginez, denok ditugula hegoak erdi hautsita. Nolanahi ere, **hori ez da hegan egiten ez ahalegintzeko arrazoi nahikoa.** Funtsean, eta ikuspegi espiritualago batetik, gogoeta horrek gonbidatzen gaitu konturatzerako bokazioa ez dela meritutik sortzen, baizik eta norberaren txikitasun bedeinkatutik. *Ahulezian indartsu izateko* pixkanakako esperientzia da, azken batean (2 Kor 12,9).

• Askatasun askatua

«Libre izateko askatu gaitu Kristok. Iraun ezazue, beraz, sendo, eta ez makurtu berriro esklabotzaren uztarpera.» (Ga 5, 1)

Aurreko guztiak agerian uzten du askatasunaren hainbat ikuskera daudela. Batzuek uste dute askeagoak izango garela aukeren eskaintza handiagoa badugu eskura, ezeri uko egin behar izan gabe. Egia esan, benetako askatasuna lortzeko, norberak uko egiteko gai izan behar du. Zuhaitz bat tente hazteko bide bakarra adar batzuk inaustea da, beste batzuk haz daitezen. Bide bati ekiteko ezinbestekoa da beste leku batzuetara eramango gaituzten beste bide batzuk ez hartzea. Era berean, bokaziorako beharrezkoa da **aukeratzeko eta uko egiteko nolabaiteko gaitasuna** eskuratzea.

Epe laburrera begira bizi gara eta horrek pertsona askoren erabakiak hartzeko gaitasuna baldintzatzen du. Horrek dena bizitzeko munduko denbora guztia dugunaren gezurrezko inpresioa sortzen du. Horrela, gaur egun munduak etengabe gonbidatzen gaitu dena esperimantatzera, dena egin daitekeela esaten digu behin eta berriro eta inongo proposamenei ezetz esateko gaitasuna garatzea eragozten du. Hala ere, norberaren hautaketak eta uko egiteak onartzean bakarrik **agertzen dira lehen ez genituen erantzukizun eta aukera berriak**. Horixe da bizitza proiektu bat eraikitzen joateko bide bakarra. Eta bizitza erreal eta zentzudunari baietz esateko behar diren trebetasunen parte da hori.

• Doakotasuna eta ausardia

«Bost talentu hartu zituenak inbertitu egin zituen berehala eta beste bost irabazi». (Mt 25, 16)

Bokazioa bereizteko, garrantzitsua da norberaren dohainak eta talentuak ezagutzea, baina berriro esango dugu: dohainak eta talentuak ez dira aukeratzeko irizpide bakarra, ezta irizpide nagusia ere. Ez da zer dakidan ongien egiten, baizik eta zerk egiten nauen ni neu, zerk ukitzen nauen barnetik eta eramaten nauen arrakasta akademikoak edo profesionalak ekartzen duten gogobetetzea baino urrunago dagoen zoriona lortzera. Horrek, askotan, kultura

teknokratiko honetan gutxietsita dauden balioak berreskuratzea dakar. Horien artean, edertasuna, kontenplazioa, doakotasuna, errukia, harridura... Ez du merezi bizitza ikuspegi teknikatik eraginkorra denari eskaintzea, zentzurik eta zorionik gabe bizi badugu.

Badirudi eraginkortasuna eta baliagarritasuna jainko gidari bihurtu ditugula, eta ikuspegi horretatik, bizitzako arrakasta arrakasta profesionalaren edo akademikoaren arabera neurtzen dela. Horrek gazteen bizitza baldintzatzen du, eta askok tentsio handia bizi dute beren bokazio pertsonalaren eta arrakasta profesionalaren artean. Horretan laguntzen dute, gainera, bokazioa argitzeko test eta orientazio batzuek –gaizki deituak–, soilik gaitasun akademikoak baloratzen dituztenak, ikuspegi pragmatiko eta utilitarista batetik. Jakina, ez da baikortasun inozo eta arduragabe batean erori behar, baina gaur egungo kultura aldatu behar dugu, **baliagarritasuna edo eraginkortasuna ez daitezela izan egiaren azken irizpide.**

Horretarako **ausardia eta adorea** behar dira. Arrakasta profesionala bilatzeko arrazoi nagusia da lehenbailehen egonkortasun handiagoa lortzea, bizitzan ongizatea eskuratzeko. Funtsean, segurtasuna bilatzea da gaur eguneko ia balio nagusia. Nolabait, segurtasunarekiko obsesio hori oztopo larria bihurtzen da, zuhurtzia faltsu bat sortzen baitu eta, horrek, azkenean, geldiarazi egiten gaitu. Bizitzako aukera orok zuhurtzia, bereizketa, gogoeta... eskatzen ditu, baina baita arriskua eta ausardia ere, porrot egitea edo erabaki okerra hartzea gerta bailiteke. Bokazio guztiek dute apustu eta abentura puntu bat, “ezerezean jauzi egitea” da, babes sarea maite dugun hori bera izanik. Eta maite duenagatik arriskuak hartzeko gai ez denak, ez du hori benetan maite.

• Irautea eta jarraitzea

«Aitak maite nauen bezala, halaxe maite zaituztet nik ere zuek; iraun tinko nire maitasunean.» (Jn 15, 9)

Orain arte, bizitza bokazio gisa ulertzera eta hori kontuan hartuta aukeratzeko gai izatera bideratutako elementuez aritu gara. Baina bada ezinbesteko beste elementu bat ere: irauteko eta jarraitzeko gaitasuna. Borondateaz eta ahaleginaz baliatzea behar-beharrezkoa da bai hautaketa bat egiteko eta bai, hautaketa hori edozein izanik

ere, bide horretan jarraitzeko. Bokaziozko hautaketa orok konpromisoak eskatzen ditu eta konpromiso horiei eustea ez da batere erraza gaurko munduan.

Gaur egungoa bezalako "gizarte likido" batean¹¹, bokazio aukera are zailagoa bihurtzen da. Faktore askok gonbidatzen gaituzte konpromisoak erlatibizatzerara. Gaur egun, ohikoa da iritziz aldatzea, haizeak nondik jotzen duen edo zer sentimendu nagusitzen den ikusirik. Gehiago saltzen du behin-behinekoa denak; konpromiso bat eskatzen duenak, baina «ez erabatekoa»; behartzen duenak, baina «zerbaiten truke». Klausulaz eta baldintzaz betetako konpromisoak hobesten dira. Garai likidoen berezko "jario" horren aurrean, hartutako konpromisoei denboran eusteko gai diren **persona sendoak sortuko dituen kultura bat behar dugu.**

Garrantzitsua da agindutakoaren, hitzaren, fideltasunaren, irmotasunaren eta abarren balioa berreskuratzea. Eta beharrezkoa da, benetako zoriona ez baita posible konpromiso iraunkorrik gabe, elkarrekiko promesekiko konfiantzak sortzen duen bakerik gabe. Ezinbestekoa da hain gizatiarra eta kristaua den zerbait ez galtzea: gure promesekin eta promesen eraginak jasoko dituztenekin konpromisoa hartzeko gaitasuna.¹²

Dena erlatiboa dela eta, beraz, aukerak eta konpromisoak ere erlatiboak direla azpimarratzen duen ustearen aurrean, benetako maitasunak, barne-barnean, **betierekora begiratzen duen eta konpromisoa eskatzen duen dinamika bat** ezkutatzen duela aldarrikatu behar da. Horregatik, bokaziozko hautu oro (ezkontzea, bizitza sagaratua, apaiz egitea... edozein bizi egoera) edo «betiko» izateko asmoz egiten da edo ez da ez ezkontza, ez bizitza sagaratua, ez apaizgoa, ez bizitzeko hautua. Besterik gabe, horrexegatik, erabatekoak eta betiko direlako edo ez direlako. Funtsean, baldintzak edo denbora mugak dituen maitasun oro gezurrezko maitasun aizuna da.¹³

Egia da bizitzak buelta asko ematen dituela eta, egoera bat edo beste bat dela eta, bizitzan egindako hautu batek porrot egin dezakeela, aurrera eramaten ahalegintzen garenean. Beti izan dira

¹¹ Kontzeptu hori zabal garatu du Zygmunt Baumanek bere bibliografian.

¹² Ik. <https://pastoralsj.org/ser/3249-incumplir-promesas>

¹³ Ik. <https://pastoralsj.org/creer/3144-el-miedo-al-para-siempre>

bizimodua aldatzen duten pertsonak. Baina alde handia dago errealtate horiek akats edo ezbehar gisa ulertzearen eta bokazioaren eta Jainkoaren borondatearen aldaketa gisa ikustearren artean. Jainkoak ez du inor bazterrean uzten. Beraz, bizitzan egindako hautu batek, edozein arrazoi dela medio, porrot egiten duenean, Jainkoak beti bide berriak irekitzen eta ahalbidetzen ditu, zoriontasuna lortu ahal izateko.

4. Ondorio gisa: bidean aurrera egiten jarraitzeko

«Jainkoaren erregetzarekin, landan ezkutatua dagoen altxorarekin bezala gertatzen da. Norbaitek, aurkitzen duelarik, berriro ezkutatu egiten du, eta pozaren pozez joan, dituen guztiak saldu eta landa hura erosten du». (Mt 13, 44)

Dugun testuingurua kontuan hartuta, ahaleginak egin behar dira gure kultura berezia bokazioaren osotasuna lortu nahi duten bizitzetarako aukera izan dadin. Proposamen hori eskakizun handikoa da, batez ere, garatu nahi ditugun esparruetan gure burua mugatuta eta oraindik guztiz heldu gabe ikusten dugunean. Horregatik, komeni da zeregin horretan lagunduko eta animatuko gaituzten ideia gutxi batzuk gogoratzea:

- Azken motibazioa hainbeste gazteri egiazko zoriona aurkitzen eta gozatzen laguntzea bada, hartara deituak direlako, **ba al da hori baino zeregin ederragorik?** Zalantzarik gabe, ahaleginak merezi du. Eta, egunero gazteen bidelagun garenok premiazko ikusten dugu hori, gaur egungo gazte askok bizi duten itxaropenik eta zentzurik eza kezagarria baita.
- **Ez dugu etsipenean erori behar**, indarrrik ez dugula eta planteatzen dena egiterik ez dagoela pentsatuta. Zalantzarik gabe, lana nekeza da, baina badugu eskarmentua, izan ere, probintziako toki askotan ahalegin zehatzek emaitza onak eman dituzte eta ematen jarraitzen dute.

- Aldi berean, ikusten dugu gazte askorentzat **erakargarria dela ilusioz beteriko diskurtso alternatibo bat**, bizitza zoriontsuaz eta beteaz hitz egiten duena (etsipenezko eta zentzurik gabeko etorkizunaz hitz egin beharrean), betiko izan daitezkeen aukerak badaudela azpimarratzen duena (inguratzen gaituena ezegonkorra eta iheskorra denean), egia eta ontasun objektibo bat badagoela esaten diguna (guztia erlatiboa izateak sortzen duen larritasunaren aurrean), etab.
- Era berean, ezin da ahaztu hori guztia prozesu bat dela, **pausoz pauso aurrera egiteko bide bat**. Ildo horretatik, dokumentu honek ez du errezeta magikorik eta hutsik gabekorik eskaintzen; aitzitik, misio partekatu honetan gure ekarpena egiten dugun guztiok norabide berean joatera animatzen eta bultzatzen saiatzen da. Ezerezean gera ez dadin, erakunde edo komunitate bakoitzerako planak eta estrategiak pentsatu beharko ditugu, neurri zehatzak erabaki, kultura aldaketa hau gauzatzeko (beharrezko bitartekoak, prestakuntzak, lantaldeak, pertsonak, esperientzia pilotuak, antolaketa edo egitura aldaketak, etab.).
- Dokumentuak bokaziozko bizitzaren aurkako gizarte dinamikak nabarmendu baditu ere, garrantzitsua da aitortzea gazteen artean –eta kulturaren bertan– badirela horretan laguntzen duten eta balio horietako asko gorpuzten dituzten dinamikak ere. **Elementu kultural positibo horiek antzeman eta dagokien balioa eman behar diegu, berreskuratu eta sustatzeko**. Era berean, gure erakunde askotan badira aspaldian zeregin horri laguntzen dioten ekimenak. **Esperientzia zehatz horiek lan bikaina egiten dute** eta bidea prestatzen laguntzen dute, berariaz bokazioari lotutakoak direnak baino lehenagoko galderak egiten baitituzte. Adibide gisa, eta zehatz-mehatz ekimen guztiak zerrendatzeko asmorik gabe, honakoak aipa ditzakegu: *Una mirada contemplativa de la realidad* dokumentua, MAG+S Kutxa, Hospitalitate proiektua, Herritartasun Globala, Enfocando Proiektua, Indar Ierroak, berrikuntza pedagogikoa, Pastoraltzaren eta jarduera paraeskolaren arteko integrazio handiagoa EDUCSIn, tratu ona eta zaintza sustatzea Ingurune Seguruaren Sistematan... Egia da oraindik lana dagoela egiteko, baina ezin dugu aitortu, eskertu eta nabarmendu gabe utzi orain arte egin den lan izugarria.

- Ez dezagun ahaztu gure erakunde eta komunitate askotan dugun balio handiko azken elementu bat. **Bokazioa leialtasunez eta alaitasunez bizi izan duten hainbeste adinekoren (laikoak eta sagaratuak) lekukotasuna da**, haien bizitza emankorra eta zentzuz bizitakoa beti izango baita besteentzat eredu. Eta hemen, bereziki, dagoeneko erretiratuta dauden **adineko jesuiten** testigantza azpimarratu nahi dugu, “Jainkoarengan lagun” onak izanik, inoiz ez diotelako utziko bizitza alternatiba deigarri, profetiko eta pizgarriaren eredu argi izateari: guztia ematearen apustua egin dute, Jesus pobre eta apalari jarraituz.

Gure erakunde eta komunitate ignaziotarretan bokazio kultura sortzeko gaia oso zabala eta konplexua da; dokumentu honetan jasotakoak ez du agortzen, ez du helburu hori. Ziur aski, beste dimentsio batzuk ere hartu beharko dira kontuan, hemen jaso ditugunez gainera. Poliki-poliki eta denon artean, lor dezagun dimentsio horiek guztiek gure pausoen norabidea zehaztea, helburu dugun helmuga horretara iristeko. Ez dezagun ahaztu gurekin harremanetan jartzen diren hainbat gazteren alde egin dezakegun gauzarik onena, zalantzarik gabe, beren bokazioa aurkitzen laguntzea dela.

Irakurtzeko eta lanerako gida



Dokumentua irakurtzeko hiru maila/proposamen:

▶ **Lehen maila:** edukia irakurtzea, esaten duena ulertuz. [Gutxi gorabeherako denbora: 70-75 min]

▶ **Bigarren maila:** dokumentua lantzea, edukiak barneratuz, gerora hazteko eta aplikazio praktikoko bideak bilatzen lagunduko duen gogoetari begira..

- Arratsalde bat edo goiz bat har liteke dokumentua irakurri eta gogoeta egiteko tarte lasai bat edukitzea eta, ondoren, gogoeta hori taldeetan partekatzea
- Era berean, irakurketa, gogoeta eta solasaldia bi zatitan bana daitezke: lehenengo tarte batean, 0, 1 eta 2 atalak har daitezke (sentsibilizatzen eta gaia testuinguruan kokatzen laguntzeko, gaiaren inguruko ulermenak bateratzeko, zergatia eta helburua ulertzeko...); eta, ondoren, 3 eta 4 atalak landu (bideak eta zehaztasunak ebaluatu eta pentsatzeko...)

▶ **Hirugarren maila:** otoitzerako irakurketa, hainbat egunez, Bibliako pasarteak "kokatzeko" irakurriz, atal eta ideia bakoitza barneratzeko, norberaren bizitzari eta misioari begira azal daitezkeen erresistentziez, gonbidapenez edo zalantzez jabetuz. Eta, denborarekin, erakunde/komunitate bereko beste pertsona batzuekin mozioak partekatzea, Jainkoak nondik haztera gonbidatzen gaituen bereizteko

Hausnarketarako lagungarri izan daitezkeen zenbait galdera:

Ignaziotar komunitateren batekoa banaiz:

- Zer zailtasun ikusten ditut une honetan nire testuinguruan eta nire komunitatean bokazioa sendotasunez bizitzeko?
- Zertan egiten dio argi dokumentuak nire bokazioari? Eta nire misioari?
- Zer argi edo zalantza ekartzen dizkio parte naizen komunitateari? Zer bultzatu edo aldatu beharko litzateke bokazio kultura handiagoa izateko? Zer bide berri irekitzen ditu?

Probintziako sektore apostoliko bateko obra edo erakunde batean lan egiten edo kolaboratzen badut::

- Nire sektorean eta ni nagoen obran, zein dira bokazio kulturaren berezko elementuekin neurri handiagoan bat egiten duten misioaren ezaugarriak? Zein dira bokazioa sendotasunez bizitzeko ditugun zailtasunik handienak?
- Zertan egiten dio argi dokumentuak nire bokazioari?
- Nola lagundu dezaket nik –nire presentziarekin eta lanarekin– bokazio kultura handiagoa sortzen?
- Nola sor dezakegu bokazio subjektu gaituak prestatzen lagunduko duen "mikroklima" hori erakundea osatzen dugun guztion artean? Zer ekarpen egin dezake erakundearen eremu bakoitzak? [Adibidez: komunikazioa, prestakuntza, harremanak, erlijioa, balio nagusiak, politikak, aisia, ospakizuna...]
- Norantz hazi behar dute nire erakundearen sektorearen dimentsioek? Zer bide ikusten dituzu batera lan egin dezaten?



The logo features a stylized, teal-colored 'Jhu' in a cursive script. A long, thin horizontal line extends from the right side of the 'u' across the top of the word 'Jesuitas'. Below the 'Jhu' and the line, the word 'Jesuitas' is written in a dark grey, serif font. Underneath 'Jesuitas', the words 'Provincia de España' are written in a smaller, teal-colored, sans-serif font.

Jhu
Jesuitas
Provincia de España